

ARROTZA

Amaia Jauregizar, 17 urte

Gernika

Ez nau ezagutzen, ez daki nor naizen, arrotza naiz, baina, nire amona da, nire amuma. Aitonaren hiletaz geroztik, fusil loradunek zuloak egin dizkiote burmuinean: egunean 2 edo 3 edo agian 219.605. Bitartean, harrizko malkoek aurpegia zulatzen didate. Bera ere Gernikan bizi da, baina azken bi urteetan, ikaraz, beldurrez, eta damuz josiriko azken bi urteetan ez dut ikusi, ez dut ikusi nahi izan. Kontzientzia isila, ez dago isilik, agirika egiten dit etengabe, eta horregatik ez bada ere, atzo bisitatzera hurbildu eta aldi berean urrundu egin nintzen. Egurrezko atea zeharkatu, moketa berdea zapaltzen hasi eta hara non ikusi nuen Alzheimerraren pairatzailea, esklabua, preso... Ez dio sekula esklabu izateari utziko, ez da sekula funtzionario gabeko gartzela horretatik intengo, eta gu burmuin hutsaren zelda,

burmuin betearen zelda bihurtzen saiatuko gara.

Gurpildun aulkian zegoen, baina ez bakarrik. Nire txikitako panpin batek ostontzen zuen bere besoek osaturiko otzara, berau zen bere bakardadea laguntasun bihurtzen zuena. Panpina inolako etenik gabe musukatzen zuen, eta ni soilik gauza batez ohartu nintzen, soilik gauza batek jo zidan begi-ninietako aldaba: ez nau ezagutzen, ez daki nor naizen, arrotza naiz. Hala ere, nire amuma da eta maite dut. Horregatik, asko maite dudalako, negar egiteari ekin nion. Malko erraldoien ur gazietan inpotentzia irakur daiteke, letra gorritz idatzitako hitz beltza.

Baina nik badakit, fusil loñadunek egindako zuloetariko bakoitzean etxekoon argazki bat dagoela, zuri-beltzean ateratako argazki hunkigarri bat. Gogorra izan arren, ezin izango dugu inoiz buru barnetik kanpora errebelatu, ezin izango dugu inoiz argazki hori gozatu, baina argazki hori bizi izan dugu, bizi izan gara.